


2005. urtean Estatuaren administrazioek Euskal Autonomia Erkidegoan 1.496 milioi euroko superabita izan zuten, eta euskal administrazioek 781 miloi eurokoa

Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen superabita, guztira, BPGaren %4,0 izan zen

EUSTATen datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden herri administrazioek (euskal administrazioak eta EAEn kokatuta dauden Estatuko administrazioa eta Gizarte Segurantzak), 2005. urtean, 2.277 milioi euroko superabita izan zuten finantzatzeko ahalmenari dagokionez, hau da, BPGaren %4,0.

Euskal Autonomia Erkidegoan herri administrazioek aurreko urteetako superabiterako joera mantendu dute 2005. urtean, 2004an lortutakoa bederatzi hamarrenetan hobetuz. Espainian, herri administrazioen sektoreak, 2004an BPGaren %0,2ko defizita izatetik, 2005. urtean %1,1eko superabita izatera igaro zen. 25en Europako Batasunean defizita apur bat hobetu da, 2004an BPGaren %2,7 izatetik 2005ean %2,4 izatera.

1. grafikoa: Herri administrazioen finantzatzeko ahalmenaren (+) edo beharrianaren (-) bilakaera (BPGaren %)



Iturria: Eustat

Euskal Autonomia Erkidegoan herri administrazioek finantzatzeko gaitasuna hobetu zuten, finantzazkoak ez diren baliabideek gehikuntza handiagoa izan zutelako,

2004koen aldean %8,4 gehitu baitziren, eta finantzazkoak ez ziren lanpostuak, ordea, %5,6 baino ez.

Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioak osatzen dituzten instituzio-sektoreetako guztiek superabita izan zuten 2005. urtean:

- **EAEn dagoen estatuaren administrazioak eta Gizarte Segurantzak** 1.154 milioi euroko eta 342 milioi euroko superabita izan zuten, hurrenez hurren; hau da, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden herri administrazio guztien %65,7. Superabit hauek bere horretan mantendu dira azken urteetan.
- **EAEko administrazioek** 781 milioiko saldo positiboa izan dute. Kopuru hori ondoko salo positibo hauek batuz lortu dute: 431 milioi Eusko Jaurlaritzaren instituzio-eremuan, 77 milioi Arabako foru eta toki erakundeetan, 144 milioi Bizkaikoetan eta 129 Gipuzkoakoetan. 2004. urtean saldo negatiboa izatetik 2005. urtean saldo positiboa izatera igaro ziren Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia eta Bizkaiko toki erakundeak; gainerako erakundeek kasuan, 2004ko saldo positiboa gehitu egin zen.

1. taula: Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen aurrezki garbia eta finantzatzeko ahalmena (+) edo beharria (-). 2005. urtea. Mila eurotan

Unitatea: mila euro

	1 Finantzazkoak ez diren baliabideak	2 Finantzazkoak ez diren erabilerak	3 Aurrezki garbia	4 Finantzatzeko ahal.(+) eta beh.(-)
Herri administrazioak	20.799.489	18.522.366	3.824.526	2.277.123
EAEn dauden Estatuko administrazioa+Gizarte Segurantzak	8.917.531	7.421.294	1.666.918	1.496.237
EAEn dagoen Estatuko administrazioa	2.398.405	1.244.568	1.278.319	1.153.837
EAEn dagoen Gizarte Segurantzak (**)	6.685.108	6.342.708	388.599	342.400
EAEko administrazioak (*)	13.530.378	12.749.492	2.157.608	780.886
Eusko Jaurlaritza	7.847.098	7.416.577	1.113.207	430.522
Araba	2.203.941	2.126.773	157.816	77.168
Bizkaia	6.773.956	6.629.559	486.274	144.398
Gipuzkoa	4.326.024	4.197.225	400.311	128.799

(*) Eusko Jaurlaritzaren barruan honakoak sartzen dira: adm. erak. autonomoak, EHU, Osakidetza eta sozietate publiko Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren barruan honakoak sartzen dira: foru aldundiak eta horien adm. erak. Autonomoak eta sozietate publiko batzuk; eta Toki erakundeak

(**) Gizarte Segurantzaren barruan daude: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala, Itsasoko Gizarte Institutua, INEM-Estatuko Enpleguaren Zerbitzu Publikoa, LI mutuak, LG eta Soldadak Bermatzeko Fondoa (FOGASA).

Iturria: Eustat

2000-2005 denboraldian, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioek finantzazkoak ez diren baliabideak %31,7 gehitu dituzte, eta finantzazkoak ez diren lanpostuak %38,3an. Horrenbestez, finantzazio ahalmena %5 murriztu da denboraldi honetan. 2000tik 2003ra, finantzazio ahalmena murriztu egin zen, baina 2004an eta 2005ean gehitu egin da. 2005. urtean 2.000 milioiak gaitu dira eta 2000. urteko mailetara hurbildu da.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen aurrezki garbia 2000. urteko 3.792 milioi eurotik 2005eko 3.825 milioi eurora igo da; hau da, %0,8 gehitu da.

**2. taula: Herri administrazioek azken eskarian duten partaidetza.
Euskal Autonomia Erkidegoa (mila eurotan). 2000-2005**

unitatea: mila euro

	2000	%	2001	%	2002	%	2003	%	2004	%	2005	%
Azken kontsumoko gastua	30.489.986	100,0	32.594.367	100,0	34.372.086	100,0	36.867.075	100,0	39.821.096	100,0	42.803.247	100,0
Herri adm.en azken kontsum. gastua	5.866.817	19,2	6.574.732	20,2	6.963.085	20,3	7.551.277	20,5	8.016.736	20,1	8.471.692	19,8
Kapital-eraketa gordina	10.468.359	100,0	11.200.922	100,0	12.218.713	100,0	13.416.770	100,0	14.848.714	100,0	16.645.106	100,0
Herri adm.en kapital-eraketa gordina	1.227.090	11,7	1.327.166	11,8	1.437.383	11,8	1.508.409	11,2	1.493.468	10,1	1.506.473	9,1
Barne-eskaria	41.407.486	100,0	44.325.790	100,0	47.009.893	100,0	50.497.871	100,0	55.056.113	100,0	59.448.353	100,0
Barne-eskari publikoa	7.093.907	17,1	7.901.898	17,8	8.400.468	17,9	9.059.686	17,9	9.510.204	17,3	9.978.165	16,8

Iturria: Eustat

Euskal Autonomia Erkidegoko barne-eskari publikoa barne-eskari osoaren %16,8 izan da 2005ean.

Herri administrazioek azken kontsumoan egindako gastua Euskal Autonomia Erkidegoan azken kontsumoan egindako gastuaren %19,8 izan da 2005. urtean, hau da, 2000. urtean baino sei hamarren gehiago eta 2004an baino hiru hamarren gutxiago.

Herri administrazioek 2005. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiaren kapital-eraketa gordinen egindako inbertsioak %9,1 izan ziren, hau da, 2004. urtean baino puntu bat gutxiago. Erakundeen arabera, 2005eko inbertsioen %94 euskal administrazioei egokitu zitzaizkien, eta EAEn dauden estatuaren administrazioei eta Gizarte Segurantzari %6 baino ez. Portzentaje horiek maila berdinetan mantendu dira azken urteetan.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Clara Ramos Hernández

Tel:+34-945-01 75 97 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/spanish/indice.asp